

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedrotxo Urizberera Emazabel

*Donostia,
Gipuzkoa
(1922)*

Aurkibidea



Biografia



Kaian jaioa, bertan bizi da orain ere. Hondarribikoak zituen gurasoak. Hamabi seme-alabatan bederatzigarrena zen. Etxean asko baziren ere, bazkaltzeko orduan kaiko beste hainbat arrantzale ere batzen zitzairen mahaiaren bueltan. Aitak baporea zuen, eta gerra sasoiari Iparraldera joan ziren. Hiru urte egin zituzten Baiona inguruan, gurasoak sareak konpontzen, eta semeak kontserba fabrika batean lanean. Donostiara bueltatzean, arrantzan hasi zen Maritxu baporean. 1947an ezkondu zen, kaiko emakume batekin; "pixonera" zen Luisita. Alaba bat izan zuten. Armadore eta patroizandakoa da. Kaiko elizan sakristau dabil azken urteotan.

Zintak

DON-033

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-14
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Kaian jaioa

- **Erref:** DON-033/002
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:00:33. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Kaian jaioa da. Bi logelatan hamabi seme-alabek lo egiten zuten.

2. Aita eta semeak itsasoan beti

- **Erref:** DON-033/003
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota

Laburpena:

Gurasoak hondarrabitarrak ziren. Itsasoan lan egiten zuen aitak. Seme guztiek ere bide bera jarraitu zuten. 'Maritxu' baporea zen aitarena. Ikatzetara Pasaiara joaten ziren.

3. Gerra garaian, Donibane Lohizunera ihes

- **Erref:** DON-033/004
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Kofradian ibili zen eskolan. Gerra garaian, Iparraldera alde egin zuten. Donibane Lohizunen gurasoak saregile aritu ziren eta seme-alabak lantegian. Baporean alde egin zuten Donostiatik Baionara.

4. Donibane Lohizunen eskabetxe fabrikan

- **Erref:** DON-033/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Eskabetxe fabrikan aritu zen lanean Donibane Lohizunen hiru urtez. Handik Donostiara arraunean etorri ziren bi txalupatan. Etxerik gabe geratu ziren eta batek bestera ibili ziren.

5. Gerra ostean goserik ez

- **Erref:** DON-033/006
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Euskara » Euskararen egoera

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Emaztea Kaikoa zen, baita haren gurasoak ere. Amak estraperloan erosten zituen jan-edanak. Ez zuten goserik izan arrain asko harrapatzen zuten eta. Gurasoek euskaraz egiten zuten beti, baina beraiek anai-arreben artean erdaraz asko egiten zuten. Abertzaleak ziren.

6. Hamabi urtera arte eskolan

- **Erref:** DON-033/007
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolan don Santiago izan zuten apaiz irakaslea. Hamabi-hamahiru urtera arte ibili zen eskolan. Ikasle guztiak mutilak ziren.

7. Donibane Lohizunen biltegi batean bizitzen

- **Erref:** DON-033/008
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Erbestetik etorri, Donibane Lohizunetik, eta berehala hasi zen itsasoan. Han ez zuen baimenik itsasoan aritzeko. Biltegi batean bizi izan ziren han hasieran eta gero etxea aurkitu zuten.

8. Arrantzan kostaldean bertan

- **Erref:** DON-033/009
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Inguruan aritzen zen arrantzan. Bakailaoa edo legatzaren tripak botatzen zituzten uretara eta hara arraina etorritakoan sarea botatzen zuten. Kaxoietan sartzen zuten arraina eta kaian otarretan. Antxoetan, sardinatan ere aritzen ziren.

9. Antxoa arrantzatzen

- **Erref:** DON-033/010
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:21:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Izurdeei segika, arraina topatzen zuten, antxoa. Garai batean asko harrapatzen zen. 12-14 lagunek eskuz ateratzen zuten sarea. Nola arrantzatu eta ateratzen zuten azaltzen du.

10. Emaztea pixonera

- **Erref:** DON-033/011
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:21:53. **Bukatu:** 00:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Bere emazteak saltzen zuen arraina. Pixonera zen. Sareak konpontzen zituen. Antxoa asko zegoenean, oparitu egiten zuten edo bota.

11. Marrazoak harrapatzen

- **Erref:** DON-033/012
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:24:44. **Bukatu:** 00:28:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Ama eta arreba ziren etxeko baporeko saregileak. Marrazoaren arrantzan aritua da. Prozesua azaltzen du. Arrandegira gurdi bereziarekin eramaten zuten. 12-20 kilo ingurukoak izaten ziren marrazoak.</p>

12. Bisiguak eta palomitak arrantzatzen

- **Erref:** DON-033/013
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:28:23. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:

Bisiguak nola arrantzatzen zituzten kontatzen du. Hamalau lagun aritzen

ziren, goizeko bostak aldean irtenda. Eguna argitu baino lehen heldu behar zen arraina zegoen lekura. Palomita bisigua baino gehiago izaten zen eta biak berdin batzen ziren.

13. Sardinak arrantzatzen

- **Erref:** DON-033/014
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina

Laburpena:

Sardinak Frantzia aldera joaten ziren. Nola arrantzatzen zuten azaltzen du. Arrainak neurrira sailkatzen zituzten.

14. Arraina saltzen enkantean

- **Erref:** DON-033/015
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:33:46. **Bukatu:** 00:35:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Arraina saltzeko, emakume batek txilina jotzen zuen eta hortxe hasten zen ekantea. Beti erdaraz ezagutu du. Prezioak goitik behera esaten zituen.

15. Atunetan

- **Erref:** DON-033/016
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:35:22. **Bukatu:** 00:37:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna

Laburpena:

12-15 egun pasatzen zituzten gehiena itsasoan, atunetan. Atuna nola harrapatzen zuten azaltzen du. Zimarroia asko zegoen garai batean.

16. Iparrorratza orientazio tresna

- **Erref:** DON-033/017
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:37:22. **Bukatu:** 00:39:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Ez zuten kartarik erabiltzen, dena buruz egiten zuten. Iparrorratza zen erabiltzen zuten orientazio tresna. Gerora tresna berriak erabiltzen hasi ziren. Irratia hasi arte, inorekin ez ziren komunikatzen.

17. Eguraldi txarrarekin lehorrean

- **Erref:** DON-033/018
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:39:51. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Eguraldi txarrarekin ez ziren itsasoratzen.

18. Izurdea arrantzatzea debekatua

- **Erref:** DON-033/019
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:44:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:

Antxoa inguruan harrapatzen zen. Lehenago dena eskuz egiten zuten. Izurdea arrantzatzea debekatuta egon izan da beti. Ontzian jatea zegoen baimendua.

19. Armadore eta patroï

- **Erref:** DON-033/020
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:44:31. **Bukatu:** 00:45:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Armadore eta patroï izan da Joxe Jabier baporean.

20. Soldadutza Ferrolen, Madrilen eta Donostian

- **Erref:** DON-033/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:45:53. **Bukatu:** 00:48:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutza Ferrolen egin zuen hasieran, Madrilen gero eta Donostian azkenik. Bi urte egin zituen.

21. Gozozalea

- **Erref:** DON-033/022
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:48:08. **Bukatu:** 00:50:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Jateko mizkina izan da eta gozozalea. Pasta, platanoa eta txokolatearekin hazitakoa dela dio.

22. Kotoizko sareak tindatzen

- **Erref:** DON-033/023
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:50:11. **Bukatu:** 00:54:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Sareak kotoizkoak izaten ziren; lehortu eta tindatu egin behar izaten ziren. Nola tindatzen zuten azaltzen du. Hilero tindatu behar izaten zituzten eta ondo zaindu, bestela usteldu egiten ziren. Bajurako sarea lodiagoa izaten zen eta sardinatarako finagoa, oraingoan aldean txikiak.

23. Arraina kanpora ere banatzen zen

- **Erref:** DON-033/024
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:54:32. **Bukatu:** 00:55:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Saltzeko leku ona zen Donostiako kaia eta kanpotik barku asko etortzen ziren. Bezero asko izaten zen. Espainia guztira banatzen zuten arraina esportatzaileek,

24. Txalupa-mutilak baporea garbitu behar

- **Erref:** DON-033/025
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:55:53. **Bukatu:** 00:57:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko garbitasuna

Laburpena:

Txalupa-mutil, motorista eta patroizandakoa da. Txalupa-mutilak bapore guztia garbitu behar izaten zuen, sokak lehortzen jarri eta abar.

25. Sukaldaririk ez lehen barkuan

- **Erref:** DON-033/026
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:57:35. **Bukatu:** 01:00:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Sukaldaririk lehen ez zen izaten, ez bazen atunetara joateko. Lekaleak, haragia... jaten zuten, denek lapiko bakarretik. Zahatetik edaten zuten ardoa. Ontziak garbitzeaz mutil gazteena edo zaharrena arduratu behar izaten zen.

26. Arraina non, denak hara

- **Erref:** DON-033/027
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:00:19. **Bukatu:** 01:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak

Laburpena:

Tostartekoa eta marinela hitzak sinonimoak dira. Herri guztietako arrantzaleak arraina zegoen lekuraino joaten ziren, denak leku antzekora. Kontserba lantegietara eramaten zen arraina asko zegoenean.

27. Jornala eta arraina ordainetan

- **Erref:** DON-033/028
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:01:50. **Bukatu:** 01:04:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Jornala banatzeko denen artean egiten zuten. Neurriak azaltzen ditu eta nola banatzen zuten arraina marinelen artean.

28. Jornala jan-edanean

- **Erref:** DON-033/029
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:04:45. **Bukatu:** 01:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Jan-edanean gastatzen zuten jornal gehiena. Sagardotegira ere joaten ziren Hernani aldera. Arraina eramaten zuten bertan prestatzeko.

29. Futbola zaletasun

- **Erref:** DON-033/030
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:07:18. **Bukatu:** 01:09:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Elkartea gastronomikoak

Laburpena:

Elkarte gastronomikoko bazkide gerora egin zen. Afalostean zinera joaten ziren andrekin. Futbolzalea da eta Erreala ikustera joaten zen lagunekin.

30. Barkuan argi egiteko kandelak

- **Erref:** DON-033/031
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:09:16. **Bukatu:** 01:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Gauetz argi egiteko kandelak erabiltzen ziren barkuan. Deskargatzeko lehorreko argia, farolen argia, erabiltzen zen.

31. Arraina deskargatzeko otarrak eta neurriak

- **Erref:** DON-033/032
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:10:18. **Bukatu:** 01:12:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Arraina deskargatzeko otarrak erabiltzen ziren. Herri bakoitzean izen desberdina du. Neurriak esaten ditu. Otarretatik neurtzeko ontzietara eta handik kaxatan eramaten zituzten bezeroek.

32. Emakume saltzailea txilinarekin

- **Erref:** DON-033/033
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:12:33. **Bukatu:** 01:14:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak

Laburpena:

Saltzen emakumea egoten zen beti txilinarekin. Erosleak emakume eta gizonezkoak izaten ziren. Arrain-saltzaileak kalez kale aritzen ziren. Arrantzaleak oinutsik aritzen ziren gehienetan.

33. Mariskoa, txapiroiak eta arrain txikien arrantza

- **Erref:** DON-033/034
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:14:43. **Bukatu:** 01:17:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txapiroiak

Laburpena:

Langosta harrapatzen aritzen ziren bere emaztearen senide batzuek. Bera ez zen horretan ibiltzen. Txapiroia eta arrain txikiak ezin salduta ibiltzen ziren Iparraldean ibili zirenean, ez ziren estimatzen. Langostak nola harrapatzen ziren kontatzen du.

34. Arrantza-aparailu motak

- **Erref:** DON-033/035
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:17:25. **Bukatu:** 01:18:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Arrantza-aparailu motak azaltzen ditu.

35. Baserritarrak zalgurdian etxez etxe

- **Erref:** DON-033/036
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 01:18:59. **Bukatu:** 01:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Baserritarrak zalgurdiarekin ibiltzen ziren etxez etxe barazkiak saltzen.

36. Txipiroitarako arrantza-aparailua

- **Erref:** DON-033/037
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:19:20. **Bukatu:** 01:20:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak

Laburpena:

Txipiroitarako arrantza-aparailua erakusten du eta arrantzatze teknika azaltzen.

37. Arrantzaleak arraunean

- **Erref:** DON-033/038
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:20:38. **Bukatu:** 01:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Motorrik gabe, arraunean aritzen ziren arrantzaleak ezagutu ditu. Batel baten argazki zaharra erakusten du.

38. Arraina berehala plazara saltzera

- **Erref:** DON-033/039
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:21:35. **Bukatu:** 01:22:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Arraina harrapatutakoan segituan plazara eramaten zen saltzera. Arraina ez zen saldu aurretik garbitzen, tapatuta ekartzen zuten.

39. Arrantzaleen artean lehia

- **Erref:** DON-033/040
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 01:22:23. **Bukatu:** 01:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Barkuan bakoitzak bere lana izaten zuen, beti funtzio bera gehienetan. Lehia handia izaten zen arrantzaleen artean.

40. Baporea arrainarekin etorriz gero, txistu hotsa

- **Erref:** DON-033/041
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 01:23:00. **Bukatu:** 01:25:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Baporea arrainarekin etorriz gero, txistu hotsa entzuten zen. Arrainik gabe etorriz gero, ixilik. Itsasontziek eta bezeroek ilaran egon behar izaten zuten sarri.

41. Itsasontzi denak batera arrantzara

- **Erref:** DON-033/042
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:25:37. **Bukatu:** 01:27:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak

Laburpena:

Barkuak denak batera joaten ziren, elkar ikusten zuten gehienetan. Argia ikusiz gero, denak hara.

42. Sareak eta barkuak bedeinkatuta

- **Erref:** DON-033/043
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:27:20. **Bukatu:** 01:28:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Elizak bazuen indarra arrantzaleengan ere. Itsasoratu aurretik errezatu egiten zuten. Sarean santuren baten irudiren bat lotuta ipintzen zuen andreak. Barkua eta sarea berriak zirenean bedeinkatu egiten ziren.

43. Itsasontziak egurrezkoak

- **Erref:** DON-033/044
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:28:37. **Bukatu:** 01:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Barkuak egurrezkoak izaten ziren eta ikatzarekin erabiltzen zen. Batelean gizon bakarra edo bi ibiltzen dira etxeakoak. Bolintxak sareak dira. Bere aita eta ibiltzen ziren traineruan.

44. Estropadetan jendetza

- **Erref:** DON-033/045
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:30:30. **Bukatu:** 01:31:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:

Estropadetara jende asko etorri izan da. Anaiak ibili izan dira arraunean. Taldeak eta irabazleak aipatzen ditu.

45. Futbolearen hondartza

- **Erref:** DON-033/046
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:31:49. **Bukatu:** 01:33:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Arranplan bainatzen zen jendea. Berak ez zeukan ohiturarik. Umetan futbolearen aritzen zen hondartza, baita Atotxan ere lehiaketa batean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com